



Nº expediente: 22/2023

**Procedimiento:** Aprobación de la Ordenanza reguladora del uso y funcionamiento de los huertos ecológicos de Zigoitia

**ZIGOITIKO BARATZE EKOLOGIKOEN  
ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDUA  
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

**ORDENANZA REGULADORA DEL USO Y  
FUNCIONAMIENTO DE LOS HUERTOS  
ECOLÓGICOS DE ZIGOITIA**

**Zioen azalpena.**

Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak garrantzi handia du ingurumenaren ikuspuntutik eta ikuspegi sozioekonomikotik, eta naturgunea osatzen duen elementu gisa, batez ere landa-ingurunean. Horrez gain, balio handia du natura-eta paisaia-ondareari dagokionez, hala nola Zigoitiko udalerrarena.

Proiektu honen xedea da baratze ekologikoak jartzeko udalaren espazio bat egokitzea. Baratze horiek biztanle guztien esku egongo dira. Helburu nagusia sektore sozial guztietan ingurumen hezkuntzako eta tokiko jasangarritasuneko balioak hedatzen lagunduko duen baliabidea sortzea da; eta, horretarako, herritarren artean jarrera-aldaketak bultzatuko dira, eta, era berean, biztanleriaren artean bizimodu aktiboa indartuko da. Hau da, udal jabetzako espazio bat jarriko da ekimenean parte hartu nahi duten pertsonen esku, barazkiak ekoizteko, betiere ekoizterakoan nekazaritza ekologikoko irizpideak jarraituko direlarik.

Ekimen horrek topagune bat sortzea dakar. Topagune hori lagungarria izango da errespetua eta lurraren kultiboa, elikagaiak tokiko mailan eta forma jasangarrian ekoiztea eta ingurua zaintzea balioak sustatzeko, besteak beste. Gainera, ekimen horrek izaera sozial argia du; izan ere, asmoa da herritarren arteko harremanak eta Zigoitiko udalerrian bizi diren pertsonen eta familien arteko ezagutza sustatuko dituen topagunea ahalbidetzea.

Nekazaritza ekologikoa Zigoitiko herritarrei hurbiltzearen eta ekoizteko eta kontsumitzeko zirkuitu laburren balioa nabarmentzearen aldeko apustu hori bat dator zenbait eskalatan ezarritako helburuekin, besteak beste: Nekazaritzako Elikagaien EAEko Estrategia; Europar Batasunak elikadura osasungarriaren eta jasangarriaren arloan dituen helburuak, eta Nazio Batuek onetsitako garapen jasangarrirako zenbait helburu (GJH), zehazki, 3. GJH (Osasuna eta

**Exposición de motivos.**

La actividad agroganadera tiene una enorme importancia desde el punto de vista ambiental y socioeconómico, así como elemento conformador del espacio natural, especialmente en un entorno rural y un enorme valor en cuanto al patrimonio natural y paisajístico como el del municipio de Zigoitia.

Mediante este proyecto se pretende acondicionar un espacio municipal para ubicar unos huertos ecológicos que estarán a disposición de sus habitantes. El objetivo fundamental es crear un recurso que contribuya a extender valores de educación ambiental y sostenibilidad local en todos los sectores sociales, promoviendo entre la ciudadanía un cambio de actitudes y fomentar al mismo tiempo un estilo de vida activo entre la población. En definitiva, se trata de poner a disposición de aquellas personas que quieran tomar parte en la iniciativa, un espacio de propiedad municipal destinado a la producción de verduras y hortalizas, siguiendo siempre unos criterios de agricultura ecológica para su producción.

Esta iniciativa supone la creación de un espacio de encuentro que contribuye a fomentar valores como el respeto y cultivo de la tierra, la producción de alimentos de forma local y sostenible y el cuidado del entorno. Además, se trata de una iniciativa que también posee un marcado carácter social ya que se trata de habilitar un espacio de encuentro donde se podrán fomentar las relaciones entre la ciudadanía y el conocimiento mutuo entre personas y familias que residen en el municipio de Zigoitia.

Esta apuesta por el acercamiento de la agricultura ecológica a la ciudadanía de Zigoitia y por la puesta en valor de los circuitos cortos de producción y consumo, está alineado con diferentes objetivos establecidos a diferentes escalas, como por ejemplo la Estrategia Vasca Agroalimentaria, objetivos de la Unión Europea en materia de alimentación saludable y sostenible, así como con varios de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) aprobados por



Ongizatea), 11. GJH (Hiri eta Erkidego Jasangarriak), 12. GJH (Ekoizpen eta Kontsumo arduratsuak) eta 12. GJH (Klimaren aldeko ekintza).

Toki-mailara etorrira, ekimen honen bidez, Zigoitiko Udalak onetsitako Klima Larrialdiaren aurka Borrokatzeko Planean aurreikusitako ekintza zehatzetako bati erantzuten zaio. Bertan, "Elikadura Burujabetza eta elikagaien tokiko ekoizpen ekologikoa" eremu tematikoaren barruan, honako ekintza hau identifikatzen da: "Ohiko etxebizitzetan laborantzarako lursailik ez duten pertsonentzako baratze ekologikoen ekimen edo proiektuak abian jartzea".

Jakitun egon behar dugu elikagaiak ekoizteko eta kontsumitzeko dugun moduak inpaktu negatibo handia ekar dezakeela ingurumenean, funtsean honako arrazoi hauengatik: elikagaien ekoizpena deslokalizatzea eta munduko hainbat lekutatik garraiatzea, lurzorurako kutsatzaileak diren ongarririk eta produktu kimikoak erabiltzea, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren eredu nagusia, etab.

Europako Kontseiluak argitaratu dituen datuen arabera, nekazaritzako elikagaien sektoreak inpaktu esanguratsua du ingurumenean. Berotegi-efektuko gasen munduko isurien heren bat inguru elikadura-sistemetatik dator, Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernuarteko Talde baten txostenak dakarrenez. Gainera, egungo elikadura-ereduak ere eragin kaltegarria du pertsonen osasunean; izan ere, Europako helduen % 50ek baino gehiagok gehiegizko pisua du.

Testuinguru horretan, EBk Europan elikagaiak ekoizteko eta kontsumitzeko modua eraldatu nahi du, honako helburu hauekin:

- elikadura-sistemen ingurumen-aztarna murriztea;
- krisiaren aurreko erresilientzia sendotzea;
- elikagai osasungarrien eta erosteko moduko eskuragarritasuna bermatzen jarraitzea, baita etorkizuneko belaunaldientzat ere.

Ildo horretan, Zigoitiko Udalak ere bat egiten du Europako helburu horiekin, eta, "0 km"-ko elikagaien ekoizpen-eredu jasangarria eta osasungarria sustatzen ez ezik, nekazaritzako elikagaien sektoreak ingurumenean eragiten dituen inpaktu negatiboak murrizten ere lagundu

Naciones Unidas, en particular el ODS 3 (Salud y Bienestar), ODS 11 (Ciudades y Comunidades Sostenibles), ODS 12 (Producción y Consumo responsables) y el ODS 13 (Acción por el Clima).

A nivel más local, esta iniciativa da respuesta a una de las acciones concretas contempladas en el Plan de Lucha contra la Emergencia Climática aprobado por el Ayuntamiento de Zigoitia, en el que dentro del ámbito temático de "Soberanía Alimentaria y producción local y ecológica de alimentos", se identifica la siguiente acción: "Puesta en marcha de iniciativas o proyectos de huertas ecológicas para las personas que en sus viviendas habituales no tengan terrenos de cultivo".

Debemos ser conscientes de que nuestra forma de producir y consumir alimentos puede generar un importante impacto negativo en el medio ambiente, fundamentalmente debido a la deslocalización y transporte de alimentos desde distintas partes del mundo, el uso de fertilizantes y productos químicos contaminantes para el suelo, el modelo imperante de agricultura y ganadería, etc.

Según los datos publicados por el Consejo Europeo, el sector agroalimentario tiene un impacto considerable en el medio ambiente. Aproximadamente un tercio de las emisiones mundiales de gases de efecto invernadero procede de los sistemas alimentarios, según un informe del Grupo Intergubernamental de Expertos sobre el Cambio Climático (GIECC). El modelo alimentario actual también tiene un efecto perjudicial en la salud de las personas, ya que más del 50% de los adultos europeos presentan sobrepeso.

En este contexto desde la UE se persigue el objetivo de transformar la forma de producir y de consumir alimentos en Europa para:

- reducir la huella medioambiental de los sistemas alimentarios;
- reforzar su resiliencia frente a las crisis;
- seguir garantizando la disponibilidad de alimentos saludables y asequibles, también para las generaciones futuras.

En este sentido, el Ayuntamiento de Zigoitia hace suyos estos objetivos europeos, y pretende contribuir no sólo a fomentar un modelo de producción de alimentos de "Km 0", sostenible y saludable, sino a reducir los impactos negativos en el medio ambiente generados por el sector



nahi du.

Ordenantza honek, zein Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a) artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 5. artikuluan toki-erakundeei aitortzen zaizen erregelamenduak egiteko eta beren burua antolatzeko ahalaren fruitu baita, euskarri juridikoa eman nahi die Udalaren hiri-baratzeen erabilerari eta gozamenari.

Udalaren hiri-baratzeen erabilerari aplikatuko zaion erregimena ezartzen du ordenantzak, bertan arautzen baitira udal-titulartasuneko baratzezaintza- eta frutagintza-espazioen erabilera eta gozamena, erabiltzaile izango diren pertsona eta kolektiboak hautatzeko prozedura eta horien eskubide eta betebeharrak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasota dauden erregulazio onaren printzipioei erantzuten die ordenantzak.

Horrela, bada, premia-printzipioaren ildotik, interes orokorreko arrazoiek justifikatzen dute araua, aurreko paragrafoetan azaldu bezala; izan ere, udal-baratzeak erabili nahi dituzten pertsona guztien eguneroko eremuari eragiten dio, eta izaera arautzaileko xedapen baten bitartez baino ezin da lortu hori. Bestalde, efikazia-printzipioaren ildotik, gorago adierazi diren helburuak lortu nahi dira arauaren bitartez.

Proporzionaltasun-printzipioaren ildotik, Udalaren hiri-baratzeen erabilera arrazionala bermatzeko ezinbestekoa den erregulazioa biltzen du ordenantzak. Segurtasun juridikoaren printzipioa aintzat harturik, udal-eskumenen esparrura mugatzen da ordenantza, eta bertan garatzen, eta arau-esparru egonkorra sortzen du, iragartzeko modukoa, integratua eta argia, zeinek ziurtasuna ematen baitu, eta inplikaturako pertsona guztiek ezagutu eta uler dezatela ahalbidetzen du.

Aldi berean, Udalaren hiri-baratzeak erabiltzeko marko malgua eratzen du. Era berean, efizientzia-printzipioari erantzuten dio ordenantzak, beharrezko ez diren administrazio-kargak, pertsonentzat baztergarriak direnak, ekiditen dituelarik, eta baliabide publikoen kudeaketa sinplifikatu eta arrazionalizatzen du.

agroalimentario.

La presente Ordenanza, fruto de la potestad reglamentaria y de autoorganización reconocida a las Entidades Locales en el artículo 4.1 a) la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, y en el artículo 5 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, pretende dar soporte jurídico al uso y disfrute de los huertos urbanos municipales.

La Ordenanza establece el régimen aplicable a la utilización de los huertos urbanos municipales, con el fin de regular el régimen de uso y disfrute de espacios hortícolas y frutícolas de titularidad municipal, el procedimiento de selección de las personas y colectivos usuarios y sus derechos y obligaciones.

La Ordenanza responde a los principios de buena regulación contenidos en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Así pues, en virtud del principio de necesidad, la norma está justificada por razones de interés general, tal y como resulta de lo expuesto en los apartados anteriores, ya que afecta al ámbito diario de todas las personas que quieran usar los huertos municipales, lo que únicamente puede ser alcanzado mediante una disposición de carácter normativo. Por su parte, de acuerdo con el principio de eficacia, la norma pretende conseguir los fines perseguidos indicados anteriormente.

En virtud del principio de proporcionalidad, la Ordenanza contiene la regulación imprescindible para garantizar una utilización racional de los huertos urbanos municipales. Atendiendo al principio de seguridad jurídica, la Ordenanza se ajusta y desarrolla en el ámbito de las competencias municipales, generando un marco normativo, estable, predecible, integrado, claro y de certidumbre, que facilita su conocimiento y comprensión por todas las personas implicadas.

Al mismo tiempo, constituye un marco flexible para la utilización de los huertos urbanos municipales. La Ordenanza obedece, así mismo, al principio de eficiencia, al evitar cargas administrativas innecesarias y accesorias para las personas y simplificar y racionalizar la gestión de los recursos públicos.



## **I. titulua.- Arau orokorrak.**

### **1. artikulua. Ordenantzaren xedea.**

Hauxe da ordenantza honen xedea:

1- Udalaren hiri-baratzeen funtzionamendu-arauak ezartzea, horiek erabili eta baliatzeko baldintzak arautuz, baita onuradun izango diren pertsona eta entitateak hautatzeko prozedura ere.

2.- Aldi berean, diziplina-erregimenaren arauak ematen dira, eta arau-haustek eta horien ondorioz baratzeak erabiltzen dituzten pertsona eta entitateei jarri ahal izango zaizkien zigorrak zehazten dira.

### **2. artikulua. Helburuak.**

Helburu hauek dituzte Udalaren hiri-baratzeek:

- Tokiko garapen ekimen bat sortzen eta koordinatzen laguntzea.
- Ingurumen-hezkuntzako eta partaidetzako zenbait balio sustatzea herritarren artean, eta, aldi berean, estilo aktiboa sustatzea.
- Proiektu jasangarri eta sozial baten oinarriak ezartzea eta horren garapena bultzatzea, eta, aldi berean, herritarren arteko harremana sustatzeko esparru egokia sortzea.
- Herritarren arteko harremanak eta elkarren ezagutza sustatzeko espazio bat sortzea.
- Aisialdi aktiboko topagunea sustatzea eta bultzatzea.
- Udalerria hornitzea bizikidetzako sozialeko espazio batekin, autokontsumorako baratze zaintza ekologikoaren inguruan.
- Kolektibo kalteberei edo egoera zaurgarrian dauden pertsona horiei espazio arautu bat hornitzea kontsumo pertsonalera bideratutako elikagaien kultiborako.
- Nekazaritza ekologikoaren jarraibideak eta irizpideak zabaltzea eta praktikan jartzea, tokiko laborantza-modu gisa.
- Balio jasangarriak eta tokiko kultura sustatzea.
- Herritarrak hurbiltzea lurraren laborantzara.
- Baratzeak espezie tradizional autoktonoak ekoizten eta berreskuratzen laguntzea.

## **Título I.- Reglas generales.**

### **Artículo 1. Objeto de la ordenanza.**

Es objeto de la presente Ordenanza:

1.- Establecer las normas de funcionamiento de los Huertos Urbanos Municipales, regulando sus condiciones de uso y disfrute, así como el procedimiento de selección de las personas y entidades beneficiarias de los mismos.

2.- Al mismo tiempo, se incluye la regulación del régimen disciplinario, estableciendo las infracciones y posibles sanciones que se pueden imponer a las personas y entidades usuarias de los Huertos.

### **Artículo 2. Objetivos.**

Los Huertos Urbanos Municipales tienen los siguientes objetivos:

- Favorecer la creación y coordinación de una iniciativa de desarrollo local.
- Fomentar una serie de valores de educación y participación ambiental entre la ciudadanía, favoreciendo al mismo tiempo un estilo de activo.
- Sentar las bases e impulsar el desarrollo de un proyecto sostenible y de carácter social, creando al mismo tiempo un marco apropiado para fomentar la interrelación entre la ciudadanía.
- Creación de un espacio para fomentar las interrelaciones entre la ciudadanía y el conocimiento mutuo.
- Promover e impulsar un espacio de encuentro para el ocio activo.
- Dotar al municipio de un espacio de convivencia social en torno a la práctica de la horticultura ecológica para autoconsumo.
- Proporcionar a colectivos desfavorecidos o a aquellas personas que se encuentren en una situación delicada, un espacio regulado para el cultivo de alimentos destinados a su consumo personal.
- Difundir y poner en práctica pautas y criterios de agricultura ecológica como forma de cultivo a nivel local.
- Promoción de valores sostenibles y cultura local.
- Acercar a la ciudadanía al cultivo de la tierra.
- Favorecer la producción y recuperación de especies hortícolas tradicionales autóctonas.



- Elikagaien ekoizpen-eredu ekologikoa, hurbilekoa eta osasungarria sustatzea.
- Produktu eta barazki ekologikoen eta tokikoen kontsumoa eta sentsibilizazioa handitzea.
- Kontsumoaren kultura jasangarriagoa sustatzea eta herritarren esku jartzea horretarako beharrezko baliabideak.
- Abeltzaintza ekologikoari, konpostaren ekoizpenaren, euri-uraren aprobetxamendu-sistemei, eta abarrei buruzko beharrezko prestakuntza ematea.
- Herritarrei aukera bat eskaintzea ingurumen-hezkuntzaren balioak irakasteko eta ezagutzeko, bereziki gazteenei, ekimen horri lotutako jarduerak eginez (hitzaldiak, bisitak baratze ekologikoetara...).
- Fomento de un modelo de producción de alimentos ecológico, de cercanía y saludable.
- Incrementar el consumo y la sensibilización por los productos y hortalizas ecológicos y locales.
- Fomentar una cultura de consumo más sostenible y poner a disposición de los/as ciudadanos/as los medios necesarios para ello.
- Facilitar la formación necesaria sobre agricultura ecológica, producción de compost, sistemas de aprovechamiento del agua de lluvia...etc.
- Ofrecer una alternativa a la ciudadanía para inculcar y conocer valores de educación ambiental, especialmente entre los más jóvenes, mediante la realización de actividades en torno a esta iniciativa (charlas, talleres, visitas a huertos ecológicos...etc).

### **3. artikulua.- Kontzeptua.**

Udal-titulartasuneko ekipamenduak dira Udalaren hiri-baratzeak, baratzegintza ekologikoko jarduerak —irabazi-asmorik gabe— garatzera bideratuak.

Udalak edo berorren erakunde instrumentalek zuzenean kudeatzen dituzte, lursailak lagatzera bideratuak —baratzetarako erabil daitezkeen lurzatiak ulertzen direlarik—, pertsona fisikoen edo irabazi-asmorik gabeko elkarten aldeko erabilera-baimenaren erregimenean.

### **4. artikulua.- Araubide juridikoa.**

1.- Jabari publikoko ondasunen erabilera komun berezitat jotzen da Udalaren hiri-baratzeen erabilera, eta alde aurretik administrazio-baimena eskuratzea eskatzen du, hauetan ezarritakoaren ildotik:

a) 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa, edo ordeztu duen araudia.

b) Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudia onesten duena.

2.- Udalak, interes publikoko arrazoiak tarteko, baimenak baliogabetzerik izango du, kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik sortu gabe, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 92.4 artikulua edo

### **Artículo 3. Concepto.**

Los huertos Urbanos Municipales son equipamientos de titularidad municipal destinados al desarrollo de actividades de horticultura ecológica sin ánimo de lucro.

Estos son gestionados directamente por el Ayuntamiento y destinados a la cesión de parcelas (entendidas como porciones de terreno que pueden ser utilizadas para huertas) en régimen de autorización de uso a favor de personas físicas o entidades asociativas sin ánimo de lucro.

### **Artículo 4. Régimen jurídico.**

1.- La utilización de los Huertos Urbanos Municipales se califica como “uso común especial de bienes de dominio público, y requiere una previa autorización administrativa, de acuerdo a lo establecido en:

a) La Ley 33/2003 del Patrimonio de las Administraciones Públicas o normativa que la sustituya.

b) El Real Decreto 1372/1986, de 30 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

2.- El Ayuntamiento, por razones de interés público, puede revocar las autorizaciones, sin generar derecho a indemnización, de conformidad con el artículo 92.4 de la Ley 33/2003, del Patrimonio de las Administraciones



ordezten duen araudiaren ildotik.

3.- Udalak beretzat gordetzen du lursailen antolaketa eta banaketan aldaketak egiteko eskubidea, baita horien azalera aldatzekoa eta, behar izanez gero, lursailak ixtekoa ere. Kasu horietan, udalak alde zuzenetik eta behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko die erabiltzaileei, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Erabiltzaile diren pertsona eta entitateek ez dute inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango aldaketa horien ondorioz, ez adjudikatutako lursailen azaleraren parte bat galtzen dutelarik, ez lursailak ixten direlarik, ezta bertan landutako produktuen ordainetan ere.

4.- Baratzea erabiltzeko eta, beraz, landatzeko baimenak ez dakar berekin lursailaren gaineko beste eskubiderik.

5.- Erabiltzeko baimena norberak eta ez bestek erabiltzekoa da, eta ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean baliatu ahal izango da.

6.- Baimena edozein unetan utzi ahal izango da bertan behera, edo aldatu, arrazoi justifikatuak direla medio, titularrari inongo kalte-ordainik edo bestelakorik ordaindu beharrik gabe.

7.- Baimena bertan behera utzi zaion pertsonak baratzea erabiltzen jarraitzen badu, Udalak bertatik aterarazi ahal izango du, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean aitorzen diren ahalmen eta eskumenak baliatuz.

8.- Ordenantza honetan ezarritako arauak onartzea dakar berekin Udalaren hiri-baratzeak adjudikatzeko prozeduran parte hartzeak.

## **5. artikulua. Tasa.**

Ordenantza fiskaletan finkatuko da udalaren hiri-baratzeetako lursailak erabiltzeagatik ordaindu beharko den zerga.

## **II. titulua.- Pertsona eta entitate onuradunak hautatzeko prozedura.**

### **6. artikulua.- Erabiltzeko baimenak.**

1.- Pertsona fisikoei eta nortasun juridikoa duten entitateei emango zaizkie Udalaren hiri-baratzeak erabiltzeko baimenak, ordenantza honen 8. artikuluan zehazten den prozedura baliaturik eta lehia askea ziurtatuz.

Horretarako, erabilgarri dauden lursailen

Públicas o normativa que la sustituya.

3.- El Ayuntamiento se reserva el derecho a realizar cambios en la organización y la distribución de las parcelas, así como a modificar su superficie e incluso la posibilidad de clausurar parcelas. En tales casos, el Ayuntamiento deberá avisar previamente a los usuarios y usuarias con antelación suficiente, salvo causas de fuerza mayor. Las personas y entidades usuarias no tendrán derecho a indemnización alguna como consecuencia de tales cambios, ni por la pérdida de superficie de las parcelas asignadas, ni por su clausura, ni por los productos que se cosechen en ellas.

4.- La autorización del uso del huerto para su cultivo no implica ningún otro derecho sobre el terreno.

5.- La autorización de uso es personal e intransferible, y sólo se mantendrá mientras se cumplan las condiciones establecidas.

6.- La autorización podrá ser revocada o modificada en cualquier momento por causas justificadas, sin que su titular tenga derecho a indemnización o compensación alguna.

7.- En caso de que la persona a la que se le ha revocado la autorización, siga haciendo uso del huerto, el Ayuntamiento podrá desalojarla, en ejercicio de las facultades y prerrogativas reconocidas en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.

8.- La participación en el procedimiento de adjudicación de los Huertos Urbanos Municipales implica la aceptación de las normas establecidas en esta Ordenanza.

## **Artículo 5. Tasa.**

En las ordenanzas fiscales se establecerá el correspondiente tributo local por el uso de parcelas en los huertos urbanos municipales.

## **Título II.- Procedimiento de selección de las personas y entidades beneficiarias.**

### **Artículo 6.-Autorizaciones de uso.**

1.- Las autorizaciones de uso de los Huertos Urbanos Municipales se concederán a personas físicas y entidades con personalidad jurídica mediante el procedimiento definido en el artículo 8 de esta ordenanza asegurando la libre concurrencia.

A tal fin los servicios técnicos municipales



zerrenda finkatuko dute udal-zerbitzu teknikoek.

2.- Nortasun juridikoa duten elkarte eta entitateei ematen zaizkien baimenak lehia askearen erregimena baliatuz emango dira, deialdira aurkezten diren proiektuak balioetsi ondoren.

### **7. artikulua.- Onuradun izateko betekizunak.**

Baratzeak erabiltzeko baimena eskuratzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

1.- Pertsona fisikoen kasuan:

- a) Adinduna izatea, eta Zigoitiko auzotarra, hots, biztanleen udal-errolan izena emanda egotea. Bizikidetz-unitateko onuradun bakarra baimenduko da.
- b) Baratzeetako lursailak erabiltzeko baimenak emateko deialdian parte hartzea.
- c) Deialdiaren urtearen aurreko bietan udal-lursail bat erabiltzeko baimenik ez eduki izana, ordenantza honen 8.3 artikuluko hirugarren paragrafoan ezarritakoa gorabehera.
- d) Udalari ordaindu beharreko zergak ordainduta edukitzea.

2.- Nortasun juridikoa duten elkarte eta entitateen kasuan:

- a) Zigoitiko Elkartearen Udal-erregistroan izena emanda izatea.
- b) Nortasun juridikoa duten elkarte eta entitateei lursailak erabiltzeko baimenak adjudikatzeko deialdian parte hartzea, ordezkari adindun bat izendatuz horretarako.
- c) Proiektu bat aurkeztea, non baratzeetan egiteke dauden jarduerak garatzen diren, eta beren jarduerak nekazaritza ekologikoarekin edo deialdian bertan zehazten diren bestelako helburuekin zerikusia dutela justifikatzea.
- d) Udalari ordaindu beharreko zergak ordainduta edukitzea.

establecerán el listado de las parcelas disponibles.

2.- Las autorizaciones concedidas a asociaciones y entidades con personalidad jurídica, se otorgarán en régimen de libre concurrencia, tras la valoración de los proyectos presentados a la correspondiente convocatoria.

### **Artículo 7. Requisitos para ser beneficiaria o beneficiario.**

Para poder acceder a la autorización de uso de los Huertos se deben cumplir los siguientes requisitos:

1.- En caso de personas físicas:

- a) Ser mayor de edad y residir en Zigoitia, figurando en el Padrón Municipal de habitantes. Solo se permitirá una persona beneficiaria por unidad convivencial.
- b) Participar en la convocatoria para la autorización de uso de parcelas de huertas.
- c) No haber tenido una autorización de uso de una parcela municipal en los dos años anteriores al de la convocatoria, sin perjuicio de lo establecido en el párrafo tercero del artículo 8.3 de esta Ordenanza.
- d) Estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento.

2.- En caso de asociaciones y entidades con personalidad jurídica:

- a) Estar inscritas en el Registro municipal de Asociaciones de Zigoitia.
- b) Participar en la convocatoria para la adjudicación de autorizaciones de uso de parcelas para asociaciones y entidades con personalidad jurídica, designando la persona mayor de edad representante de la misma.
- c) Presentar su proyecto, en el que desarrollen las actividades a realizar en los huertos, con justificación de que sus actividades están relacionadas con la agricultura ecológica y/o aquellos otros fines establecidos, en su caso, en la propia convocatoria.
- d) Estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento.



## **8. artikulua. Baimena eskuratzeko prozedura.**

1.- Hainbat hedabidetan (besteak beste Udalaren iragarki-taulan eta webgunean) iragarriko den deialdi publikoaren bidez ekingo zaio prozedurari Deialdian bertan zehaztuko da eskabideak aurkezteko epea, zein ezingo baita izan 15 egun naturaletik beherakoa.

2.- Hiri-baratzeetako lursail bat adjudikatzea nahi duten pertsona eta entitateek Udalaren Erregistro Nagusian edo herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batean aurkeztu beharko dute eskabidea, horretarako eskuragarri izango duten eredu normalizatua baliatuz.

Eredu normalizatuan bertan nahiz deialdiaren oinarrietan eskatzen diren agiriak erantsi beharko zaizkio eskabideari.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da Udalaren webgunean eta iragarki-taulan, baztertzeko arrazoiak adierazten direlarik.

Ondoren, 15 eguneko epea zabalduko da, erreklamazioak aurkezteko eta agirietako akatsak zuzentzeko.

Erreklamazioak ebazten direlarik, onartutako eskabideen behin betiko zerrenda argitaratuko da. Pertsona fisikoei zuzendutako deialdiaren kasuan, zozketarako zenbakia agertuko da zerrendan, eta hura zein egun eta ordutan izango den adieraziko da.

Zozketaren emaitza akta batean jasoko da, eta Udalaren iragarki-taulan eta webgunean. Zozketa egin ondoren, adjudikaziodunei jakinaraziko zaie Udalaren hiri-baratzeak erabiltzeko baimenaren inguruko ebazpena.

Elkarteek eta pertsona juridikoei aurkezten dituzten eskabideen balioespenaren emaitza Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da, eta erabiltzeko baimenen adjudikaziodun egokitzen direnei jakinaraziko zaie.

3.- Erabiltzeko baimena adjudikatzea:  
Zozketa egin ondoren, lursailak erabiltzeko

## **Artículo 8. Procedimiento para la obtención de autorización.**

1.- El procedimiento se iniciará mediante convocatoria pública que será anunciada a través de diversos medios, entre ellos el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en la página web municipal. El plazo límite para presentar solicitudes será determinado en la respectiva convocatoria, que en ningún caso será inferior a 15 días naturales.

2.- Las personas o entidades interesadas en la autorización de una parcela en los Huertos Urbanos deberán presentar solicitud ante el Registro General del Ayuntamiento, a través del modelo normalizado de instancia que a tales efectos se facilite.

A la solicitud se deberán acompañar los documentos que se exijan en el modelo normalizado o en las bases de la convocatoria realizada al efecto.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, se expondrá al público en la página web municipal y en el tablón de anuncios, la lista provisional de las personas admitidas y excluidas, señalando la causa de exclusión.

A continuación, se abrirá un plazo de 15 días, para presentación de reclamaciones o subsanar la documentación aportada.

Resueltas las reclamaciones se publicará la lista definitiva de solicitudes admitidas. En el supuesto de convocatoria dirigida a personas físicas en la lista aparecerá el número con el que se concurre al sorteo, indicando día y hora del mismo.

El sorteo se reflejará en un acta y el resultado se hará público para su consulta en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento. Una vez efectuado el sorteo se notificará a las personas adjudicatarias la resolución relativa a la autorización de uso de los Huertos Urbanos Municipales.

El resultado de la valoración de las solicitudes presentadas por asociaciones y personas jurídicas se hará público para su consulta en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento y se notificará a las personas adjudicatarias de la autorización de uso.

3.- Adjudicación de la autorización de uso:  
Una vez realizado el sorteo, la autorización de





baimena emango zaie pertsona fisiko adjudikaziodunei.

Baratze libreak baldin badaude, udalak baimena emango du baratze horiek erabiltzeko, eskabidearen sarrera-erregistroaren hurrenkera zorrotzean.

Partzela guztiak erabiltzeko baimenak eman ostean, ondoz ondoko eskaerak itxaron-zerrenda batean sartuko dira. Itxaron-zerrenda hori eskabidearen sarrera-erregistroaren ordenaren arabera ordenatuko da, eta baimena emango da baratzeak libre geratu ahala.

Itxaron-zerrendan pertsonarik ez egotekotan, Udalak udal baratzearen erabilera baimendu ahalko die aurreko urteetan horien gozamina izan duten pertsonen. Kasu horietan, erabileraren baimenak bi urteko gehieneko indarraldia izango du.

4.- Administrazio publikoen ondarearen erregimenari buruzko araudian edo hori ordeztzen duen araudian adierazten direnak jaso beharko ditu baimena emateko erabakiak. Udalaren hiri-baratze bat erabiltzeko baimena ematen deneko administrazioaren ebazpenak agortu egingo du administrazio-bidea. Organo eskudunaren ebazpenaren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, erabakia hartu duen organo berari zuzenduta, edo, behar izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

5.- Udalak lehentasuna emango dio erabileraren baimentzean etxebizitzan nekazaritzako lursaila ez duten bizikidetzak-unitateei.

#### **9. artikulua. Baimenen indarraldia.**

Gehienez ere 4 urteko indarraldia izango dute baimenek, eta ezingo da epe hori luzatu.

#### **10. artikulua. Baimenen iraungipena.**

1.- Udalak baratzeak erabiltzeko ematen dituen baimenak iraungi egingo dira honako kasu hauetan:

- a) Epea amaitu delako.
- b) Erabiltzailea hiltzen edo ezintasun egoeran egokitzen delarik, edo nortasun juridikoa agortzen bada. Heriotza gertatzen bada, Udalak aprobetxamenduarekin jarraitzeko aukera eskainiko die bizikidetzak-unitate bereko kideei.

uso de las parcelas se otorgará a las personas físicas adjudicatarias.

En caso de disponer de huertos libres, el ayuntamiento autorizará su uso por riguroso orden de registro de entrada de la solicitud.

Una vez otorgadas las autorizaciones de uso de todas las parcelas, las sucesivas solicitudes formarán parte de una lista de espera, ordenada por orden de registro de entrada de la solicitud, y se otorgará la autorización según vayan quedando huertos libres.

De no haber personas en la lista de espera, el Ayuntamiento podrá autorizar el uso a personas que hayan disfrutado de un huerto municipal en los dos años anteriores. En estos casos la autorización de uso tendrá una vigencia máxima de dos años.

4.- El acuerdo de autorización, deberá contener los extremos señalados en la normativa sobre régimen del Patrimonio de las Administraciones Públicas o normativa que la sustituya. La resolución administrativa, por la que se adjudique la autorización de uso de un Huerto Urbano Municipal, pondrá fin a la vía administrativa. Contra la resolución del órgano competente cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante la misma autoridad que dictó aquélla, o, en su caso, recurso contencioso-administrativo.

5.- El Ayuntamiento priorizará la autorización de uso de estas huertas a aquellas unidades convivenciales que no disponen de terreno agrícola en su vivienda.

#### **Artículo 9. Duración de las autorizaciones.**

Las autorizaciones tendrán un plazo de vigencia máximo e improrrogable de cuatro años.

#### **Artículo 10. Extinción de las autorizaciones.**

1.- Las autorizaciones que se concedan por el Ayuntamiento para el uso de los Huertos, se extinguirán por las siguientes causas:

- a) Por vencimiento del plazo.
- b) Por muerte o incapacidad sobrevenida de la persona usuaria o extinción de la personalidad jurídica. En caso de fallecimiento, el Ayuntamiento ofrecerá la posibilidad de continuar el aprovechamiento a los miembros de la misma unidad convivencial.



- c) Eman diren ondasunak fisikoki edo juridikoki galdu egin direlako.
- d) Ondasuna desafektatu delako.
- e) Bi aldeak ados jarri direlako.
- f) Aldeetako batek bere kasa ezeztatzen duelako.
- g) Epaileak ebazpena eman duelako.
- h) Adjudikaziodunak uko egin duelako.
- i) Udalaren hiri-baratze gisa baliatzen diren lursailen gainean edozein hornidura publiko edo pribatu jartzea dakarren hirigintza-garapenerako edo azpiegiturak gauzatzeko edozein plan edo proiektu onesten delako.

- c) Por pérdida física o jurídica del bien sobre el que han sido otorgadas.
- d) Por desafectación del bien.
- e) Por mutuo acuerdo.
- f) Por revocación unilateral de la autorización.
- g) Por resolución judicial.
- h) Por renuncia de la persona adjudicataria.
- i) Por la aprobación de cualquier Plan o proyecto de desarrollo urbanístico o de infraestructura que conlleve la implantación de cualquier dotación pública o privada sobre los terrenos destinados a Huertos Urbanos Municipales.

### **III. titulua.- Erabilera- eta gozamen-baldintzak.**

### **Título III.- Condiciones de uso y disfrute.**

#### **11. artikulua.- Baimenen izaera pertsonala.**

#### **Artículo 11. Carácter personal de las autorizaciones.**

Baratzeak erabiltzeko baimenak pertsona fisiko titularrei eta nortasun juridikoa duten entitate eta elkarteei emango zaizkie, eta berariaz debekatuta egongo da horiek besteri mailegatzeari, uzteari, alokatzeari edo eskualdatzeari. Beti ere, pertsona edo entitate adjudikazioduna izango da lagatako lursailaren erabilera erantzule bakarra, eta, hortaz, hurrengo artikuluan ezartzen denaren kontrako erabilerak berekin dakartzan ondorioena.

Las autorizaciones de uso de los Huertos son otorgadas a persona físicas titulares y a entidades y asociaciones con personalidad jurídica, estando prohibido expresamente su préstamo, cesión, arriendo o transmisión a terceras personas. En todo caso la persona adjudicataria o entidad adjudicataria, será la única responsable del uso de la parcela cedida y de las consecuencias derivadas de uso contrario a lo establecido en el artículo siguiente.

#### **12. artikulua. Erabilera-arauak.**

#### **Artículo 12. Normas de uso.**

1.- Udalaren hiri-baratzeak erabiltzeko baimenen adjudikaziodun diren pertsona eta entitateak behartuta egongo dira erabilera-arau hauek betetzera:

1.- Las personas y entidades beneficiarias de las autorizaciones sobre los Huertos Urbanos Municipales, vendrán obligadas al cumplimiento de las siguientes normas de uso:

- a) Administrazio-baimenean zehazten diren landare-espezieak landatzeko baliatzea baratzeak, halakorik zehazten bada.
- b) Nekazaritza ekologikoaren irizpideak baliatzea, eta, halaber, ura aurrezteari lehentasuna ematen dioten ureztatze-sistemak, eta norberaren haziak edo jatorri ekologikoa duten landare edo haziak. Ongarri organikoak bakarrik erabili ahal izango dira. Baratzean bestelako produkturik erabiltzekotan, hala nola ongarriak eta pestizidak, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEK) baimendutako produktu fitosanitarioak izan beharko dute, eta aldeaz aurretik

- a) Destinar los huertos al cultivo y plantación de aquellas especies vegetales que, en su caso, se especifiquen en la autorización administrativa.
- b) Utilizar criterios de agricultura ecológica, sistemas de riego que prioricen el ahorro de agua, utilizar su propia semilla, o bien planta o semilla de procedencia ecológica. Sólo se podrán utilizar abonos orgánicos. El uso de otros productos destinados al cultivo (como fertilizantes y plaguicidas) deberán ser productos fitosanitarios autorizados por el Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi/ Euskadiko Nekazaritza Elikadura eta Ekologikoaren kontseilua-CRAAE/ENEK y deberán ser



Udalak baimendu beharko ditu.

- c) Erabiltzeko uzten diren lursaila, instalazioak, lanabesak eta tresnak behar adinako arretarekin zaintzea. Bereziki, erabiltzaileek harri, egur, landare, hondakin edo lurrik gabe, garbi eduki beharko dituzte beren lursailen mugakide diren korridoreak, baita, halakorik bada, mugakide dituzten landare-ontziak zaindu ere (ureztatu eta jorratu). Era berean, baratzeen mugetako heskaian airetiko parteak kanpoko aldera luza daitezela ekidin beharko dute, eremu komunak, ondoko baratzeak edo bideak ez ditzaten hartu. Baratzeen erabiltzaileek nekazaritzarako behar dituzten lanabesak maileguan jasotzen badituzte, behar bezala erabili eta zaindu beharko dituzte, ez hondatzeko. Oker erabiltzearen ondorioz kaltetu edo hondatzen diren ondasun eta tresnak konpondu edo berritu egin beharko dituzte, baita galtzen dituztenak ere. Lanabesak gordetzeko lekuak garbi eta egoera onean eduki beharko dituzte.
- d) Jardueraren arduradunek ematen dizkieten jarraibideak errespetatzea, une oro. Jardueraren arduradunek ematen dizkieten arauak errespetatzea, urasketako uraren, ongarrien, lanabesen eta, oro har, uzten zaien beste edozein elementuren erabilerari dagokionez. Armairutxo irekitzea galdatzen zaielarik, ikuskatzeko, hala egitea.
- e) Gizalegezko jokabidea izatea une oro, eta baratzeen eta utzitako tresna eta lanabesen gainerako erabiltzaileekiko begirunea erakustea; haiei enbarazurik ez egitea, eta kalte edo zauririk eragin liezaiekeen tresnarik ez erabiltzea.
- f) Jatorriz uzten zaien lursailaren egitura eta azalerari bere horretan eustea, inongo obra edo itxiturik egin gabe, salbu eta eskumena duen udal-organoak aldezu aurretik horretarako baimena ematen badie.
- g) Jardueraren arduradun diren teknikariek jakinaraztea baratzeei, bertako instalazioei nahiz utzitako materialari eragiten dien gertakari, lapurreta, arazo, kalte edo hondamen oro, beste autorizados previamente por el Ayuntamiento.
- c) Mantener con la debida diligencia la parcela, las instalaciones, útiles y herramientas que se ceden para el uso. En particular, las personas usuarias deberán mantener limpios de piedras, maderas, vegetación, residuos o tierra los pasillos colindantes a su parcela, así como el cuidado (riegos y escardas) de las jardineras ornamentales colindantes, si las hubiere. Asimismo, deberá impedirse que la parte aérea de los setos o cultivos situados en las lindes del huerto sobresalgan hacia el exterior del mismo, a fin de evitar la invasión de zonas comunes, huertos vecinos o caminos. Las personas usuarias de los huertos que, en su caso, reciban en concepto de préstamo los útiles necesarios para realizar la actividad agrícola, habrán de utilizar éstos con el debido cuidado para evitar su deterioro. Deberán reparar o reponer aquellos bienes o utensilios que resulten dañados o destruidos por el uso inadecuado de los mismos o resulten extraviados. Los espacios destinados a guardar las herramientas deben mantenerse limpios y en buen estado.
- d) Respetar en todo momento las indicaciones que les den las personas responsables de la actividad. Respetar las normas dadas sobre la actividad en relación con el uso del agua de las albercas, los abonos, las herramientas y en general, de cualquier elemento que se les facilite. Cumplir el requerimiento para la apertura y posterior inspección de la taquilla.
- e) Mantener en todo momento un comportamiento cívico adecuado y respetuoso con las demás personas usuarias de los huertos y herramientas y útiles cedidos, evitando molestias y absteniéndose de la utilización de artilugios que pudieran provocar daños o lesiones a los mismos.
- f) Mantener la misma estructura y superficie de la parcela que se cede en origen, no se podrá realizar ningún tipo de obra o cerramiento que no sea previamente autorizado por el órgano competente del Ayuntamiento.
- g) Poner en conocimiento de las personas responsables municipales de la actividad cualquier incidencia, usurpación, anomalía, daño o perjuicio que afecte a los huertos, a sus instalaciones o al



erabiltzaileren batek nahiz kanpoko norbaitek eraginak izan.

- h) Lursaila garbi eta hutsik uztea hura erabiltzeko baimena bukatzean. Jaso zituztenekoaren antzeko egoeran itzuli beharko dituzte baratzeak adjudikaziodunek. Aurreikusitako erabileraren ondorioz normala den baino hondamen handiagorik gertatuz gero instalazioetan, pertsona eta entitate erabiltzaileek jatorrizko egoerara bihurtu beharko dituzte gauzak, edo berritu, eta, baten batek betebeharrak hori betetzen ez badu, Udalak egin ahal izango du zuzenean, eta, gerora, administrazioak halakoetarako duen ahalmena baliatu, hari ordainarazteko.
- i) Erabiltzen bukatzean lanabesak itzultzea. Maileguan jasotako lanabesak eta gainerako tresnak garbi eta egoera onean itzuli beharko dira, eta zer edo zer hondatu bada, jakinarazi.
- j) Baratzeetan materialak edo lanabesak ez utzi edo pilatzea, salbu eta lurra lantzeko ezinbestekoak direnak.
- k) Ureztapena baratzeen instalazioetan erabiltzaileen eskura jartzen diren bitartekoak baliatuz egitea. Ezingo da erabili bertan dauden edo eskura jartzen direnez bestelako elementurik horretarako, salbu eta baratzeen arduradunek baimentzen badute. Bereziki, debekatuta egongo da ihinztargailuak edo aldameneko baratzeak inbadi ditzaketen bestelako bitartekoak erabiliz ureztatzea. Ureztatzeko ura alferrik galtzea ekidin beharko da, eta dagoen ura neurritz kanpo kontsumitzea dakarten ureztatze-metodoak erabiltzea. Era berean, debekatuta egongo da ura beste edonondik ekartzea, ez bada horretarako egokitutako lekutik. Aisialdiko baratzeen erabiltzaile diren pertsona eta entitateek ura erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa edo kanon bat ezarri ahal izango du Udalak, hornidura-kostuak aintzat harturik. Lehorte-garaietan, ura kontsumitzeko mugak ezarri ahalko ditu udalak.
- l) Baratzeen barru aldera trakzio mekanikoko ibilgailuekin ez sartzea, ez badira laborantza-lanetarako beharrezkoak.

material prestado, ya provenga de las demás personas usuarias, ya de personas ajenas al uso de aquéllos.

- h) Dejar la parcela limpia y vacía una vez finalizada la autorización de uso. Los huertos serán devueltos en condiciones análogas a las que tenían cuando fueron cedidas. En caso de deterioro de las instalaciones que no fuera el normal a causa del uso previsto, las personas o entidades usuarias deberán reponer o restaurar las cosas a su estado de origen, y de que alguna no cumpliera con su obligación de reparar, lo podrá hacer directamente el Ayuntamiento a costa de aquella, ejerciendo las potestades para el reintegro que ostenta la Administración en estos supuestos.
- i) Devolver las herramientas a la finalización del uso. Las herramientas y demás útiles recibidos en préstamo, deberán ser devueltos limpios y en perfecto estado, comunicando cualquier desperfecto detectado.
- j) Evitar el depósito o acumulación de materiales o herramientas en los huertos, que no fueran los estrictamente necesarios para el cultivo de la tierra.
- k) Realizar el riego con los medios que se pongan a disposición de las personas usuarias en las instalaciones de los huertos de ocio. No se podrán utilizar otros elementos distintos a los existentes o disponibles, salvo que lo autoricen las personas responsables de los huertos. En particular, se prohíbe el riego con aspersores u otros medios que puedan invadir otros huertos colindantes. Se evitará en cualquier caso el despilfarro de agua o la utilización de métodos de riego que provoquen un consumo anormal del agua disponible. Asimismo, queda prohibida la traída de aguas desde cualquier otro punto que no se encuentre habilitado al efecto. El Ayuntamiento podrá establecer el pago de una tasa o canon por el aprovechamiento del agua por las personas o entidades usuarias de los huertos de ocio, en función de los costes que conlleve el suministro. Se podrán establecer desde el Ayuntamiento limitaciones al consumo de agua en épocas de sequía.
- l) No acceder al interior de los huertos con vehículos de tracción mecánica que no fueren destinados estrictamente al cultivo de los mismos.



- m) Baratzeak landu edo erabiltzeari ez uztea. Adjudikaziodun den pertsona edo entitatea behartuta egongo da baratzea lantzearen inguruko jarduera oro garaiz egitera, eta hura erabiltzeko eskubidea galdu egingo du baldin eta arrazoi justifikaturik gabe bertan behar utzi duela atzematen bada. Aldi batez baratzea lantzeko ezintasuna egokitzen zaiolarik, erabiltzaileak jardueraren arduradunei jakinarazi beharko die, hamar egun balioduneko epean, horren berri duenetik. Baratze bat bertan behera utzita dagoela joko da bertan landatuak zaindu gabe daudela nabarmena bada, baita basalandareek hartua badago ere, edo bertako izurri eta bizkarroien ugaritasunak aldameneko lursailtako landareei kalte egiteko arriskua badago. Baratze bat bertan behera utzita badago, erabiltzaileak —ohartarazten zaiolarik— hamabost egun naturaleko epea izango du hura egokitzeko. Hala egin ezean, soildu egingo da baratzea, eta erabiltzaileak ez du inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.
- n) Pertsona fisikoen kasuan, lursailaren erabilerari dagozkion zereginak norberak egitea, Udalaren aurrean behar bezala egiaztatutako kasuak salbu. Nolanahi ere, lizentziaren titularrak beste pertsona batzuen laguntza jaso ahal izango du baratzea landu eta zaintzeko orduan, aldezturik baratzearen arduradunei ahoz jakinarazten diolarik; baina galarazita egongo da, beti ere, beste inor subrogatzea adjudikaziodunaren lekuan.
- o) Beste entitate batzuekiko lankidetzaproiektuetan parte hartzea, Udalak —baratze ekologikoen kudeaketaren arduraduna den aldetik— programatzen dituelarik.
- p) Baratzeetan sortzen den materia organikoa konpostatzeko bide emango da. Horretarako, zuzenean baratze bakoitzean konpostatzeko obligazioa ezartzen da, edo hainbat baratzeri zerbitzu ematen dieten konpostatzeko lekuetan.
- m) No abandonar el cultivo o uso de los huertos. La persona o entidad adjudicataria tiene la obligación de realizar puntualmente todas las actividades relacionadas con el cultivo de la huerta, y perderá su derecho a usarla si se detecta un abandono de la misma por causas no justificadas. En caso de imposibilidad temporal para el cultivo de la huerta, deberá comunicar esta circunstancia a las personas responsables de la actividad en el plazo de diez días hábiles desde su conocimiento. Se considerará que una huerta está en situación de abandono cuando sea evidente la falta de cuidados de los cultivos implantados, o se encuentre ocupada por hierbas silvestres o bien la abundancia de plagas o parásitos supongan un riesgo para la salud de los cultivos de las parcelas colindantes. Cuando una huerta esté en situación de abandono, la persona usuaria, una vez avisada, dispondrá de quince días naturales para el acondicionamiento de la misma. De lo contrario, se procederá a su desbroce, sin derecho a indemnización alguna.
- n) En el caso de personas físicas, ejecutar personalmente las labores propias del uso de la parcela, salvo los casos debidamente acreditados ante el Ayuntamiento. No obstante, quien sea titular de la licencia se podrá ayudar de otras personas, en labores de apoyo en el cultivo y mantenimiento, previa comunicación verbal a las personas responsables de las Huertas, sin que se permita en ningún caso la subrogación de dichas personas en el lugar de la adjudicataria.
- o) Participar en los diferentes proyectos de colaboración con otras entidades que se programen por el Ayuntamiento responsable de la gestión de los Huertos municipales ecológicos.
- p) Se propiciará el compostaje de las materias orgánicas procedentes de los diferentes huertos. A tal fin, se establece la obligación de compostar directamente en cada huerto, y/o mediante compostadores comunitarios que den servicio al conjunto de huertos.

2. Baimenaren titular den pertsona edo entitateak erabilera-arau horietako edozein urratzen badu, Udalak bertan behera utzi ahal izango du hura, Administrazio Publikoen

2.- Si la persona o entidad titular de una autorización incumple cualquiera de las anteriores normas de uso, el Ayuntamiento podrá revocar la misma, para lo cual deberá tramitar un



Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ildotik administrazio-prozedura izapidetu ondoren.

### 13. artikulua. Debekuak.

1.- Udalaren hiri-baratzeak baratze ekologiko gisa baino ezingo dira baliatu, edo pedagogia-, terapia-, ingurumen-, gizarte- edo zientzia- eta teknika-xedeekin lotura duten nortasun juridikoko elkarte eta entitateen jarduera-programetarako, eta norberaren edo senitartekoen kontsumorako espezieak baino ezingo dira landatu; lorategiko landareak izango dira salbuespen bakarra.

Horrenbestez, ezingo dira beste edozertarako baliatu. Berariaz debekatuta egongo da:

- a) Baratzeko produktuak merkaturatzea. Baratzeen erabiltzaileen arteko trukea baino ez da egongo baimenduta.
- b) Lurra hondatzen duten landareak eta landare psikotropikoak nahiz legeek debekatuak landatzea, eta hazi transgenikoak erabiltzea.
- c) Nekazaritza ekologikoaren alorrean indarrean dagoen legediak baimentzen ez dituen herbizidak, pestizidak eta ongarrri kimikoak erabiltzea.
- d) Fauna bereizketarik gabe harrapatzeko tranpa edo metodoak erabiltzea, baita horretarako jakiak jartzea ere, gai pozoitsuak eduki ala ez.
- e) Edonolako bereizgailu edo mugaketarik jartzea —kanaberak, egurrak, hesiak, plastikoak—; ohol finkorik edo bankurik jartzea; txorimaloak, barbakoak, txabolak, estalpeak, oilategiak nahiz edozein animalia hazi edo edukitzeko kaiolak edo edonolako eraikuntzak egin edo instalatzea, dela material artifizialekin, dela naturalekin — parrak— ; elementu berriak eraiki edo instalatzea edo lehendik zeudenak aldatzea, salbu eta Udalak horretarako baimena berariaz ematen badu. Baimen hori idatziz eskatu beharko da, eta bide bera baliatuz erantzungo zaio eskatzaileari.
- f) Zuhaitzak eta zuhaixkak landatzea, fruitu espeziekin zerikusia duten proiektuetarako lursailetan izan ezik.

procedimiento administrativo conforme a lo que establece la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

### Artículo 13. Prohibiciones.

1.- Los Huertos Urbanos Municipales se dedicarán única y exclusivamente a huerto en clave ecológica, o desarrollo de los programas de actividades por parte de las asociaciones o entidades con personalidad jurídica relacionadas con finalidades de cariz pedagógico, terapéutico, ambiental, social o científico-técnico, cultivándose sólo especies para el autoconsumo humano, admitiéndose como única excepción el cultivo de plantas de jardinería.

En consecuencia, no podrán ser destinadas a otras finalidades, quedando expresamente prohibido:

- a) Comercializar los productos obtenidos en el cultivo del huerto. Únicamente se permite el intercambio y/o trueque entre las personas usuarias de los huertos.
- b) El cultivo de plantas degradantes del suelo, de plantas psicotrópicas y/o prohibidas por la ley y la utilización de semillas transgénicas.
- c) El uso de productos herbicidas, plaguicidas y abonos químicos no autorizados por la legislación vigente en materia de Agricultura Ecológica.
- d) El empleo de trampas o métodos de captura no selectivos para la fauna, así como la colocación de cebos, incluyan o no sustancias venenosas.
- e) La instalación de algún tipo de separación o delimitación, mediante cañas, maderas, vallas, plásticos, la colocación de tablas fijas o bancos, levantar o instalar espantapájaros, barbacoas, casetas, cobertizos, chabolas, gallineros y/o jaulas para la cría o tenencia de cualquier animal, porches o edificaciones de cualquier tipo sean con materiales artificiales o naturales, emparrados, la construcción o instalación de nuevos elementos o modificación de los existentes, todo ello sin autorización expresa del Ayuntamiento. Esta autorización deberá solicitarse por escrito y se contestará por la misma vía al solicitante.
- f) El cultivo de árboles y de arbustos, salvo en las parcelas destinadas a proyectos relacionados con especies frutícolas.



- g) Ehiza egitea, zuhaitzak ebakitzea nahiz baratzean edo inguruan izan litekeen fauna eta florari kalte egin diezaiokeen beste edozein jarduera.
- h) Baratzean sortutako hondakinak erretzea edo sua egitea.
- i) Norberaren objektu eta arropak tresna eta lanabesak uzteko lekuetan gordetzea.
- j) Aurrekoez gaineko beste edozein jarduera, baldin eta eragozpenak edo usain txarrak sortzen baditu, gainerako erabiltzaileen erabilera mugatzen badu edo inguruneari eragiten badio.
- g) Cazar, talar árboles o cualquier otra actividad susceptible de causar daño en la fauna y flora que puede existir en el huerto y su entorno.
- h) Quemar los restos generados en el huerto o realizar algún tipo de fuego.
- i) Guardar objetos o ropa personal en los espacios destinados a depósito de útiles o herramientas.
- j) Cualquier otro uso o actuación que no estando previsto anteriormente produzca molestias, malos olores, límite el uso del resto de personas usuarias de los huertos o afecten al entorno del lugar.

2.- Baimenaren titular den persona edo entitateak debeku horietako edozein hautsiz gero, Udalak bertan behera utzi ahal izango du hura, administrazio-prozedura izapidetu ondoren.

2.- Si la persona o entidad titular de una autorización incurriere en cualquiera de las anteriores prohibiciones, el Ayuntamiento podrá revocar la misma, tras la tramitación del correspondiente procedimiento administrativo.

#### **14. artikulua. Erabiltzaile-izaera galtzea.**

#### **Artículo 14. Pérdida de la condición de persona usuaria.**

1.- Udalaren hiri-baratzeen erabiltzaile diren pertsona eta entitateek izaera hori galtzerik izango dute erabilera-arauak betetzen ez badituzte edo ordenantza honetan jasotzen diren debekuak errespetatzen ez badituzte, edo interes publikoko edozein arrazoiengatik.

1.- La condición de persona o entidad usuaria de los Huertos Urbanos Municipales, se podrá perder en caso de incumplimiento de las normas de uso o inobservancia de las prohibiciones que se recogen en la presente Ordenanza o por cualquier otra causa de interés público.

2.-Horrez gain, egintza edo zirkunstantzia hauek ere ekarriko dute baratzea erabiltzeko eskubidea galtzea:

2.-Además causará la pérdida del derecho al uso del huerto, los siguientes actos o circunstancias:

a) Baimenak iraungitzeko arrazoietak edozeinek —ordenantza honetan bertan jasoak—.

a) Cualquiera de las causas de extinción de las autorizaciones señaladas en la presente Ordenanza.

b) Udalari ordaindu beharreko zergak ordainduta ez edukitzea.

b) No estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento.

c) Lursaila erabili edo lantzeari utzi —hiru hilabetetik gorako aldi batez— edo baimena emateko orduan balioetsitako programa ez betetzeak, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuan izan ezik.

c) Abandono en el uso o cultivo de la parcela, durante más de tres meses consecutivos o incumplimiento del programa valorado para la obtención de la autorización, salvo causa de fuerza mayor debidamente justificada.

d) Ordenantza honetan zehazten diren bateraezintasun edo debekuetako edozein egokitzeak.

d) Concurrencia de cualquiera de las incompatibilidades o prohibiciones que se detallan en esta Ordenanza.

3.- Pertsona edo entitate erabiltzailearen izaera galtzeak ez du ekarriko berekin, inolaz ere, kalte-ordainik onartzerik.

3.- La pérdida de la condición de persona o entidad, usuaria no dará lugar en ningún caso, al reconocimiento de indemnización alguna.

4.- Udala bada lursaila erabili edo baliatzeko eskubidea galdutzat jotzen duena, behar den administrazio-prozedura izapidetu beharko du alde zuzenetik, eta entzunaldia eskaini interesdunari.

4.- Cuando sea el Ayuntamiento quien inste la pérdida del derecho de uso y disfrute, deberá tramitar previamente el correspondiente procedimiento administrativo, dándose audiencia a la persona interesada.



#### **15. artikulua.- Ordutegiak-**

Ordutegi jakin bat izango da esparrua irekitzeko —baratzeen erabiltzaile diren pertsona eta entitateak horren jakinarean gainean jarriko dira—.Baimenen erakunde onuradunei dagokien erabilera ezarritako ordutegien barruan egin beharko da.

#### **16. artikulua.- Koordinazio- eta jarraipen-bilerak.**

Udalak proiektuaren koordinazio- eta jarraipen-bilerak deitu ahalko ditu, erabiltzaileak deituz. Hasiera batean, eta hala eskatzen duten ezohiko kasuren bat gertatzen ez bada, urtero koordinazio-bilera bat deituko da.

Bilera horien xedea baratze ekologikoen proiektua koordinatzea eta dinamizatzea, eta balizko hutsuneak eta hobekuntza-esparruak identifikatzea izango da. Halaber, bilera horiek foro egokia izango dira erabiltzaileek iradokizunak eta/edo ekarpenak helarazteko proiektua koordinatzeaz eta gainbegiratzeaz arduratzen diren udal-teknikariei.

#### **17. artikulua.- Baratzeen kudeaketari atxikitako organoak eta langileak.**

1.- Aurreko tituluaren adierazitakoaren arabera baratzeen erabiltzaile diren pertsona eta entitateei dagozkien erantzukizunak gorabehera, haien kudeaketaren jarraipena egingo du Udalak, haiek egiten dituzten lanak ordenantza honetan eta aplikatu beharreko gainerako araudietan ezarritakoarekin bat datozela egiaztatze aldera.

2.- Teknikari gaituak izendatuko ditu eskumena duen organo lokalak jarraipen-zereginak egin ditzaten, baratzeei dagokienez. Langile horiek kontrol-ahalmenak izango dituzte, informazioa jaso eta ikuskatzerik izango dute, eta, gainera, jarraibide zehatzak eman ahal izango dizkiete erabiltzaile diren pertsona eta entitateei, baratzeen funtzionamendu egokiaren inguruan, eta, beraz, horiek erabiltzeko baimenak emanez lortu nahi diren helburuak lortzeko dagozkionetan.

#### **IV. titulua.- Erantzukizun-erregimena.**

#### **18. artikulua.- Erantzukizun-erregimena.**

1.- Erabiltzaile diren pertsona edo entitateak

#### **Artículo 15. Horarios.**

Existirá un horario definido de apertura del recinto, que será comunicado a las personas y entidades usuarias de los huertos. El uso que corresponde a las entidades beneficiarias de las autorizaciones, deberá practicarse dentro de los horarios establecidos.

#### **Artículo 16. Reuniones de coordinación y seguimiento.**

El Ayuntamiento podrá convocar reuniones de coordinación y seguimiento del proyecto convocando a las personas usuarias. En principio, y salvo causas extraordinarias que así lo requieran, se convocará una reunión de coordinación anual.

El objeto de estas reuniones será coordinar y dinamizar el proyecto de huertos ecológicos, así como identificar posibles deficiencias y/o aspectos de mejora. Asimismo, estas reuniones serán el foro adecuado para que las personas usuarias puedan trasladar sugerencias y/o aportaciones al personal técnico municipal encargado de la coordinación y supervisión del proyecto.

#### **Artículo 17. Órganos y personal adscrito a la gestión de los huertos.**

1.- Sin perjuicio de las responsabilidades de las personas y entidades usuarias de los huertos, el Ayuntamiento realizará un seguimiento de la gestión de aquéllos, con el fin de acreditar la conformidad de las labores realizadas por aquellas, a lo establecido en la presente Ordenanza y demás normativa que pudiera resultar de aplicación.

2.- El órgano local competente designará al personal técnico capacitado, para llevar a cabo las funciones de seguimiento de los huertos. Este personal, ostentará las facultades de control, recopilación de información e inspección, además de poder dictar las instrucciones precisas a las personas y entidades usuarias, en relación con el buen funcionamiento de los huertos y la consecución de los fines que se pretenden con las autorizaciones de uso sobre los mismos.

#### **Título IV.- Régimen de responsabilidad.**

#### **Artículo 18. Régimen de responsabilidad.**

1.- Las personas o entidades usuarias serán





izango dira lursailak erabili eta baliatu bitartean beren buruari edo besteri eragiten dizkieten kalteen erantzule, halakorik izanez gero. Nolanahi ere, Udala ez da izango erabiltzaileek elkarri edo besteri eragiten dizkieten kalteen erantzule, halakorik izanez gero.

Lursailak erabiltzeko baimenak emateko deialdian eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du dena delako pertsona edo entitateak jarduerak dakartzan arriskuak bere gain hartzea, eta Udalak ez du erantzukizunik izango kalte materialik gertatuz gero, edo erabiltzaileek nahiz horien laguntzaileek —erorketa, istripu, kolpe edo antzekoen ondorioz— kalte pertsonalik jasanez gero.

2.- Baimenaren titularrak bere arrisku eta menturara erabiliko du lursaila. Udala ez da izango fenomeno meteorologikoak direla eta —kazkabarra, uholdeak...— baratzeetan sortzen diren kalteen erantzule.

3.- Udalak ez du erantzukizunik bere gain hartuko baratzeetan gertatzen diren kalte, lapurreta eta ekintza bandalikoak direla eta. Eta ez du izango horiek zaintzeko ardurarik ere.

4.- Udalak ofizioz ekin ahal izango dio baratzeen adjudikaziodunek erru edo arduragabekeria larrien ondorioz izan litzaketen erantzukizunak argitzeko prozedurari.

## **19. artikulua.- Kalteak eta galerak ordaintzea.**

1.- Aurreko artikuluan ezarritakoaren ildotik erantzule egokitzen diren pertsona edo entitate erabiltzaileak behartuta egongo dira sortutako kalte edo zauriek eragin dieten pertsonen kalte-ordainak ordaintzera.

2.- Erabiltzeko uzten diren instalazioetako kalteengatik sortzen bada erantzukizuna, kalte-ordaina erreklamatzeko eskubidea Udalak baliatuko du, aplikatzekoak diren administrazio-zuzenbideko arauak aintzat harturik.

3.- Kalte edo zauriak partikularrei eragiten bazaizkie, hau da, gainerako erabiltzaileei, haiek galdutako dute erantzukizuna, legedia zibilean ezarritakoaren ildotik.

responsables de los posibles perjuicios que puedan causarse a sí mismas o a terceras personas en el ejercicio de sus facultades de uso y disfrute. En ningún caso será responsable el Ayuntamiento de los daños o perjuicios que puedan causarse entre sí o a terceras personas.

La presentación de solicitud a la correspondiente convocatoria, a fin de obtener una autorización de uso, conlleva la aceptación por las personas o entidades solicitantes de los posibles riesgos derivados de la actividad, sin que deba responder el Ayuntamiento por daños materiales o personales a causa de caídas, accidentes, golpes o situaciones similares que padezcan las personas autorizadas o sus acompañantes.

2.- Quien sea titular de la autorización, ejercerá el uso sobre la correspondiente parcela a su propio riesgo y ventura. El Ayuntamiento no se hará responsable de los daños que puedan sufrir las huertas debido a fenómenos meteorológicos adversos tales como granizadas o inundaciones.

3.- El Ayuntamiento no asumirá responsabilidades por daños, sustracciones o actos vandálicos que puedan afectar a los huertos. Tampoco asumirá responsabilidad de custodia.

4.- El Ayuntamiento podrá iniciar de oficio el procedimiento conducente a determinar las posibles responsabilidades por culpa o negligencia grave de las personas o entidades adjudicatarias de los huertos.

## **Artículo 19. Indemnización por daños y perjuicios.**

1.- Las personas o entidades usuarias que resulten responsables, según lo establecido en el artículo anterior, quedarán obligadas a indemnizar a la persona o personas perjudicadas por los daños o lesiones producidos.

2.- En el caso de que la responsabilidad se origine por daños a las instalaciones que se ceden para su uso, el derecho a reclamar la correspondiente indemnización se ejercerá por parte del Ayuntamiento, en base a las normas de derecho administrativo que resulten aplicables.

3.- Si los daños o lesiones se produjeran a particulares, esto es, demás personas usuarias o terceras personas ajenas a los huertos, la responsabilidad se exigirá por parte de estas, en base a lo establecido en la legislación civil.



## V. titulua.- Zigortzeko erregimena

## Título V.- Régimen sancionador.

### 20. artikulua.- Ikuskaritza eta kontrola.

### Artículo 20. Inspección y control.

1.- Udalak izendatzen dituen teknikariek egingo dituzte ikuskapen- eta kontrol-lanak; hain zuzen ere, ordenantza honetan arautzen diren gaien inguruko zaintza-, ikuskapen eta kontrol-jarduerak burutu ahalko dituzte.

1.- La inspección y control se efectuará por el personal técnico designado por el Ayuntamiento que, podrá realizar actuaciones de vigilancia, inspección y control en relación con las materias reguladas en la presente Ordenanza.

2.- Baratzeen erabiltzaile diren pertsona eta entitateak behartuta egongo dira pertsona horiei bertara sartzen uztera, baita eskatzen dizkieten argibideak ematera ere, baratzeen kudeaketari, erabilerari eta ustiaperari jarraipena egiterik izan dezaten hartara.

2.- Las personas o entidades usuarias de los huertos, estarán obligadas a facilitar a las personas citadas el acceso a los mismos, así como el suministro de información que se les requiera, en orden al seguimiento de la gestión, uso y disfrute que se lleve a cabo.

### 21. artikulua.- Legezketasuna babestea.

### Artículo 21. Protección de la legalidad.

Neurri hauek hartu ahal izango dira ordenantzan xedatutakoaren kontrako ekintzak edo ez egiteak egokituz gero, bakoitzerako aurreikusita dagoen prozedurari jarraikiz:

Las acciones u omisiones que contravengan lo dispuesto en la presente Ordenanza podrán dar lugar a la adopción de las medidas que a continuación se establecen, que serán impuestas por el procedimiento previsto para cada una de ellas:

- a) Hondatutakoa berritu edo lehengo egoerara bihurtzeko obligazioa, baita kalte-galerak ordaintzekoa ere.
- b) Kautela-neurriak hartzea, aplikatzekoa den araudian ezarritakoari jarraikiz.
- c) Administrazio-aginduen betearazpen subsidiarioa.
- d) Zigorrak jartzea.

- a) Obligación de reposición y reparación de lo alterado a su estado originario, así como de pago de la indemnización de daños y perjuicios.
- b) Adopción de medidas cautelares de acuerdo con lo establecido en la normativa aplicable.
- c) Ejecución subsidiaria de las órdenes administrativas.
- d) Imposición de sanciones.

### 22. artikulua. Arau-haustek eta zigorrak.

### Artículo 22. Infracciones y sanciones.

1.- Ordenantza honetan halakotzat tipifikatutako ekintzak eta ez egiteak administrazio arau-haustetzat joko dira, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. tituluaren xedatutakoaren ildotik.

1.- Constituyen infracciones administrativas las acciones y omisiones tipificadas como infracción en la presente Ordenanza en virtud de lo dispuesto en el Título XI de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

2.- Ordenantza honetan aurreikusten den zigortzeko ahalmenaz baliatuzkotan, lehenik eta behin prozedura zigortzailea abiarazi eta izapidetu beharko da, titulu honetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean edo hori ordeztzen duen araudian xedatutakoaren ildotik.

2.- El ejercicio de la potestad sancionadora prevista en la presente Ordenanza, requerirá la incoación e instrucción del correspondiente procedimiento sancionador, de conformidad con lo establecido en el presente Título y en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco o normativa que la sustituya.

### 23. artikulua. Arau-haustek

### Artículo 23. Infracciones.

Hauek joko dira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen

Constituyen infracciones tipificadas al amparo del Título XI de la Ley 7/1985, de 2 de abril,



XI. tituluaren babesean tipifikatutako arau-haustetzat:

Reguladora de las Bases de Régimen Local, las siguientes:

1.- Arau-hauste arinak:

- a) Baratzeen erabiltzaileei nahiz bertan zereginen bat burutzen duten teknikari edo langileei tratu ezegokia edo txarra ematea.
- b) Ausarkeria edo axolagabekeria dela medio kalteak sortzea bertako instalazio, material edo ekipamenduetan, 100 eurotik beherakoak.
- c) Jarduera edo zerbitzuen arduradunek beren zereginen esparruan emandako aginduei jaramonik ez egitea.
- d) Lursaila onik zaintzeko oinarrizko zereginak ez egitea.
- e) Ez konpostatzea, ordenantzan aurreikusten den moduetakoren batean.
- f) Baratzeetako elkarbizitza eta funtzionamendua nahastea, besteri eragozpenak eraginez.
- g) Espezie debekatuak landatzea, edo baratzeak hondatzea dakartenak.
- h) Baratzea erabiltzeko baimena eskuratzeko ezarritako betebeharrak betetzeari eragin diezaioketen aldaketen berri ez ematea.
- i) Hondakin organikoak plastiko eta metalen edukiontzietan uztea.
- j) 12. artikuluan xedatutakoa urratzea, baldin eta larritzat edo oso larritzat jotzerik ez badago.
- k) Ordenantza honetan finkatutako betebeharren bat ez betetzea, arau-hauste larri edo oso larritzat jotzerik ez badago.

2.- Arau-hauste larriak:

- a) Baratzeen erabiltzaileei eta bertako langileei tratu txarra ematea, hitzez nahiz egitez
- b) Dela nahita, dela ausarkeria edo axolagabekeria dela medio, kalteak sortzea bertako instalazio, material edo ekipamenduetan, 100 eurotik 300era bitartean.
- c) Lursailen obrak edo aldaketak egitea, alde zuzenetik Udalaren baimena izan gabe.
- d) Baratzeetan barbakoak, estalpeak edo baimenduta ez dauden bestelako elementuak instalatzea.
- e) Lursailetan sua egitea, edozertarako

1.- Son infracciones leves:

- a) El trato incorrecto a cualquier persona usuaria, personal técnico o demás personal que realice funciones en los huertos.
- b) Causar daños por comportamiento imprudente o negligente a la instalación, material o equipamiento de la misma por importe inferior a 100€.
- c) Desatender las indicaciones de las personas responsables de las actividades o servicios dictadas en el ámbito de sus funciones.
- d) El abandono de las tareas básicas de mantenimiento de la parcela.
- e) No realizar compostaje en alguna de las modalidades previstas en la ordenanza.
- f) La alteración de la convivencia o del funcionamiento de los huertos causando molestias a otras personas.
- g) Cultivar especies prohibidas o que provoquen deterioros en los huertos.
- h) La no comunicación de cambios que pudieran afectar al cumplimiento de los requisitos establecidos para acceder a la autorización de uso de los huertos.
- i) Depositar residuos orgánicos en el contenedor de plásticos y metales.
- j) La vulneración de lo dispuesto en el artículo 12, siempre que no merezca la calificación de grave o muy grave.
- k) El incumplimiento de alguna de las obligaciones establecidas en esta Ordenanza por parte de las personas usuarias cuando no esté prevista como infracción grave o muy grave.

2.- Son infracciones graves:

- a) El maltrato de palabra u obra a otras personas usuarias o personal dependiente de los huertos.
- b) Causar daños de forma voluntaria o por comportamiento imprudente o negligente a la instalación, material o equipamiento de la misma por importe comprendido entre 101 y 300 euros.
- c) La realización de obras o modificaciones en la parcela, que no estuviesen previamente autorizadas por el Ayuntamiento.
- d) La instalación de barbacoas, cobertizos o demás elementos no permitidos en los huertos.
- e) El uso del fuego en las parcelas para



delarik ere.

- f) Nekazaritza ekologikoko betebeharrak ez betetzea.
- g) Lau urteko epean bi arau-hauste arin edo gehiago errepikatzea arau-hauste larritzat joko da.

3.- Arau-hauste oso larriak:

- a) Lurra kutsatzea.
- b) Udal-ondasunak lapurtzea.
- c) Dela nahita, dela ausarkeria edo axolagabekeria dela medio, kalteak sortzea bertako instalazio, material edo ekipamenduetan, 301 eurotik gorakoak.
- d) Debekatuta dauden landare toxikoak ekoiztea.
- e) Baratzetan landutako produktuak merkaturatzea.
- f) Horretarako eskubidea duen beste inori baratzeak erabiltzea galaraztea.
- g) Baratzeen funtzionamendu normala galarazi edo eragozte.
- h) Baratzeak erabiltzen ari diren pertsonen nahiz bertako langileei fisikoki eraso egitea.
- i) Erabiltzeko baimena lortzeko eman beharreko datuak —nortasuna, adina edo beste— faltzutzea, edo beste inoren nortasuna bereganatzea.

**24. artikulua. Zigorrak.**

1.- Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteak honako isun hauekin zehatuko dira:

- a) Arau-hauste oso larriak: 1.200 euro bitartean.
- b) Arau-hauste larriak: 600 euro bitartean.
- c) Arau-hauste arinak: 300 euro bitartean.

2.- Arau-hausteak mailakatu eta isunen zenbatekoa zehazteko, irizpide hauek hartuko dira aintzat:

- a) Erruduntasun-maila, edo nahita egin den.
- b) Jokabide arau-hauslearen jarraitutasuna edo iraunkortasuna.
- c) Eragindako kalteen izaera.
- d) Berrerori izana, urtebetean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago eginez, administrazio-bidean irmoa den ebazpen baten bitartez hala deklaratu bada.

cualquier finalidad.

- f) Incumplir los criterios de agricultura ecológica.
- g) La reiteración de dos o más infracciones leves en el plazo de 4 años se considerará como una falta grave.

3.- Son infracciones muy graves:

- a) Provocar contaminación del suelo.
- b) Sustraer bienes municipales.
- c) Causar daños de forma voluntaria o por comportamiento imprudente o negligente a la instalación, material o equipamiento de la misma por importe superior a 301 euros.
- d) La producción de plantas tóxicas que estén prohibidas.
- e) Comercializar los productos obtenidos del cultivo de los huertos.
- f) Impedir el uso de los huertos a otra u otras personas con derecho a su utilización.
- g) Impedir u obstruir el normal funcionamiento de los huertos.
- h) La agresión física hacia las personas que están haciendo uso de los huertos, así como al personal que trabaja en los mismos.
- i) El falsear los datos relativos a la identidad, edad o cualquier otro relevante para obtener la autorización de uso, o la suplantación de la identidad.

**Artículo 24. Sanciones.**

1.- Las infracciones tipificadas en el artículo anterior se sancionarán con las siguientes multas:

- a) Infracciones muy graves: hasta 1.200 euros.
- b) Infracciones graves: hasta 600 euros.
- c) Infracciones leves: hasta 300 euros.

2.- La graduación y determinación de la cuantía de las sanciones, atenderá a los criterios siguientes:

- a) El grado de culpabilidad o la existencia de intencionalidad.
- b) La continuidad o persistencia en la conducta infractora.
- c) La naturaleza de los perjuicios causados.
- d) La reincidencia, por comisión en el término de un año de más de una infracción de la misma naturaleza cuando así haya sido declarado por resolución firme en vía administrativa.



## **25. artikulua. Prozedura zigortzailea.**

1.- Titulu honetan zehaztutako arau-haustek zigortzeko prozedura bat etorriko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean edo ordezten duen araudian xedatutakoarekin.

2.- Zigortzeko ahalmenaren printzipioei dagokienez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuko da.

## **26. artikulua.- Kautelazko neurriak.**

Zigortzeko ahalmena baliatzeko eskumena duen organoak kautela-neurriak hartu ahal izango ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen edo ordezten duen araudiaren ildotik.

## **27. artikulua.- Lehengoan uzteko eta konpontzeko obligazioa.**

Zigorra ezartzeaz gain, arau-hausleari berak eraldatutako egoera lehengoan uzteko eskatu ahal izango zaio, baita, halakorik izanez gero, sortutako kalte-galerak ordaintzeko ere.

Udal-jabetzako ondasunei kalterik eginez gero, udal-zerbitzu teknikoek konponketaren zenbatekoa zehaztuko dute, eta arau-hausleari edo haren ordeztu erantzun behar duenari jakinaraziko diote, finkatzen den epean ordain dezan.

## **28. artikulua.- Bateratasuna auzibide penolarekin.**

Prozeduraren edozein unetan instrukzio-egileak uste badu bideratzen ari den egintza lege-hauste penaltzat har daitekeela, Euskal Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 25. artikuluan edo ordezten duen araudian xedatutakoa aplikatuko du.

## **Azken xedapena.**

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren

## **Artículo 25. Procedimiento sancionador.**

1.- El procedimiento sancionador en todas las infracciones reguladas en este título se ajustará a la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y a la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco o normativa que la sustituya.

2.- En cuanto a los principios de la potestad sancionadora se aplicará la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

## **Artículo 26. Medidas cautelares.**

El órgano competente para el ejercicio de la potestad sancionadora podrá adoptar medidas cautelares conforme a las previsiones de la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco o normativa que la sustituya.

## **Artículo 27. Obligación de reposición y reparación.**

La imposición de sanciones será compatible con la exigencia a la persona infractora de la reposición de la situación alterada por el mismo a su estado originario, así como, en su caso, con la indemnización de los daños y perjuicios causados.

Cuando se causen daños en bienes de titularidad municipal, los servicios técnicos municipales determinarán el importe de la reparación, que será comunicado a la persona infractora o a quien deba responder por ella para su pago en el plazo que se establezca.

## **Artículo 28. Concurrencia con proceso penal.**

Si la persona instructora, en cualquier momento del procedimiento, considerase que los hechos sobre los que instruye pueden ser constitutivos de ilícito penal, aplicará lo dispuesto en el artículo 25 de la Ley 2/1998, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco o normativa que la sustituya.

## **Disposición final.**

La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava (BOTH A)



18ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan y transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 aurreikusitako epea igarotzen delarik jarriko da de la Ley 7/1985 de 18 de abril, reguladora de indarrean ordenantza hau. las Bases del Régimen Local.

EGINBIDEA. Zigoitiko baratze ekologikoen erabilera eta funtzionamendua arautzen duen ordenantza Udalbatzak onartu zuen 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, eta ALHAOn (141. zk., 2023ko abenduaren 1ekoa) eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratu zen, 30 egunez jendaurrean egon zedin. Ez zen erreklamaziorik aurkeztu. Oso-osorik argitaratu da ALHAOn, 12. zenbakian, 2024ko urtarrilaren 29an.

DILIGENCIA. Se extiende para hacer constar que la ordenanza reguladora del uso y funcionamiento de los huertos ecológicos de Zigoitia fue aprobada por esta Corporación en Sesión celebrada el día 23 de octubre de 2023, y publicada en el BOTHA (nº 141 de fecha 1 de diciembre de 2023) y en el tablón de anuncios del ayuntamiento para su exposición al público durante el plazo de 30 días no habiéndose presentado reclamación alguna. Publicada íntegramente en el BOTHA nº 12 de fecha 29 de enero de 2024.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA**  
**DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**